



## ORDENAGAILUAK – Bikaintasun Maila

### Prozedura ireki bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

#### 1. *Thin Client* Sistemak

Ordenagailuen sare-sistema gehienak irismen handiko konputagailu-sistemak dira gaur egun. Sistema horietako bakoitzak programa guztiak hartzen ditu bere baitan, bere baliabide propioekin.

*Thin client edo bezero arina* deritzen sistemetan, berriz, kontzeptu hau aldatu egiten da: zerbitzari zentral bakar batek programa guztiak ditu eta prozesu osoa gauzatzen du; bezeroak, berriz, teklatu bat, monitore bat eta CPU txiki bat dira soilik.

Horrelako sistemak inplementatzen ari diren agintaritza publikoak gero eta gehiago dira, zeren onuragarriagoak baitira bai ekonomia eta kudeaketa aldetik eta bai ingurumen aldetik.

Bezero arinen ordenagailuak erosterakoan, maila aurreratuko ordenagailu eta monitoreei aplikatutako irizpideak har daitezke hasierako iturritzat; nolana ere, aldaketak egin beharko dira energia-kontsumoaren inguruko irizpideetan, zeren kontsumo hori ez baita neurtzen ordenagailu eta eramangarri konbentzionaletan neurtzen den bezala<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Alemaniako Ingurumen Agentziak bezero arinen erosketa berderako prestatu duen gida erreferentziatza har daiteke. Hemen dago eskuragarri (ingelesez): [https://www.umweltbundesamt.de/sites/default/files/medien/376/publikationen/guide\\_to\\_green\\_public\\_procurement\\_of\\_thin\\_clients.pdf](https://www.umweltbundesamt.de/sites/default/files/medien/376/publikationen/guide_to_green_public_procurement_of_thin_clients.pdf)